



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/05/03 Udaletxean 18.00-20.30



Gaurkoan bildu gara,

- Carlos Gonzalez (Irabazi)
- Adur Ezenarro (Bildu)
- Jose M^a Gomez (Herri ekimena)
- Edurne Huesa (Landarlan Ingurumen elkarte)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Angelica Moreno (Alkateordea, Alkatearen izenean)
- Manuel Iturrioz (EAJ)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Gai ordena

Bileran ondoko gaia landu zen:

- 1. Komunikazio kanpaina**
- 2. Hurrengo bilera**

Komunikazio kanpaina

Teknikariak aurreko akta era laburrean jaso duela eta bileraren audioa wetransfer bidez bidali zuela esan du. Denek ez dutenez jaso berriro bidaliko da.

Martxoan gaikako bilketa tasa %74koa da, aurreko bileran esan bezala atari guztietan bandoa jarri da eta prentsara ere bidali da oharra.

Teknikariak komunikazio kanpainarako proposamen bat aurkeztu du (proposamena atxikita duzue).

Bando hau jarri ondoren hobekuntza batzuk somatu dira:

- Hondakin puntuak zertxobait hobeto daude.
- Puntu beltzetan ez da hainbeste nabaritu.
- Ordutegia gehiago errespetatzen da.

EAJ: Ekintza egin, sortutako eragina eta eragin honen azterketa. Bandoa jarri ondoren aztertu behar da izan duen eragina eta ondoren, beharrezkoa bada beste neurri batzuk hartu behar dira.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/05/03 Udaletxean 18.00-20.30



Neurri hauek planteatzen dira:

- Hondakin puntuetan bandoaren antzeko zerbait jartzea.
- Kaleko zaborrontziak hondakinez gainezka daude eta ez dira erabilgarriak. Oso irudi txarra herriarentzat. Zerbait egin zaborrontzi hauetan.
- Hondakin puntuetan botatzen diren poltsen karakterizazioa egin.
- Ordiziarako ordenantza bat landu behar da. Bilketa sistemaren aldaketa egiterako ordenantza behar da.
- Kalean hezitzaileak jarri.
- Udal aldizkarian aldiro, hondakinen inguruko informazioa eman. Atal bat jaso informazio hau emateko.

Hondakin puntuetan informazioa jartzea onartzen da, baita ere auzoetako paneletan eta informazio hau jarri daitekeela komentatzen da:

- Gaikako bilketa tasaren hileroko datuak eman. Helburutara ez bagara iristen neurri zuzentzaileak egongo direla esan.
- Puntu beltzen inguruan informatu.
- Lurrean uzten diren poltsak errefusa bezala jasotzen dira eta honek sortarazten duen gastua azaldu.
- Kolore edo aurpegi bidez adierazi daiteke egoera.

Zaborrontzietan jasotzen den hondakinen frakzio bakoitza dagokion edukiontzira botatzen da, ondo bereizten dira. Poltsakoa ondo bereiztu ez badago hau errefusara joaten da.

Sasietari ondorengo galderak luzatzea eskatzen da:

1. Atez-ateko bilketan kubo batetan frakzio bat gaizki aterata badago, gaizki dagoela esaten duen papera kubo barruan uzten jarraitzen al duzue?
2. Goizero atez-ateko puntuen errepasoa egiten duen kamioiak jasotzen duen hondakina nora botatzen da? Errepasoko bilketa honen bilakaera.
3. Arrasaten edukiontzi bidezko bilketa dute eta %85 batetako tasan daude. Nork bultzatu du? Zenbateko kostua izan du?
4. Ordiziako komertzioen bilketa ondo egiten al da? Komertzioen bilketa honen kostua.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/05/03 Udaletxean 18.00-20.30



Beste hainbat ideia:

NEKANE: Elkarlan bat egin daiteke Udala, herritar kontzientziatu eta ikastetxeetako nerabeekin, hauen bidez egin "panelak" herrian zehar jartzeko. Informazio asko dago paneletan jartzeko.

LANDARLAN: Ekimen hau erreka garbiketarekin lotu daiteke. Argazki rally bat egin eta ondoren argazki hauek paneletan jarri.

NEKANE: Ekimen hauek egiteko, Udalak zein aurrekontu duen hondakinen gairako galdetzen da.

BILDU: Herritarrei eskatu hondakin puntu ezberdinen argazkiak bidaltzeko, puntu onak eta txarrak ikusteko. Web orrialdera igo argazki hauek. Udal aldizkarian ere argitaratu daitezke.

PATXI: Egunero kuboak bildu behar direla ere esan behar da.

EAJ: Ideia asko daude baina ikusi behar dugu eraginkortasuna, kostua eta hainbat gai kronograma bat zehaztu beharko litzateke.

ALKATEORDEA: 2016ko aurrekontuak oraindik ez daude onartuta, maiatzean egin ekimenak kostu txikikoak eta ondoren, aurrekontua onartu ondoren beste ekimenak zehazten joaten gara. 2016ko aurrekontuen borradorean sentsibilizaziorako atal bat dago eta onartu eta gero dirua egongo da.

ORDIZIA ORAIN: 2016ko aurrekontuak onartuko diren ikusiko dela erantzuten du.

EAJ: Gaikako bilketak duen garrantzia ikusi eta gero, ekimen interesgarri bat badago finantziazioa lortuko dugu. Talde politiko guztiak gaude hemen.

BILDU: Bilketa sistema aldaketa noiz izango den galdetzen du.

ALKATEORDEA: Ez dakigula erantzuten du, baina Ordiziaren aurretik Beasain, Urretxu eta Zumarragan egingo dituzte aldaketak.

Hondakin puntuetan nola jarri kartel hauek hitz egiten egon gara.

LANDARLAN: Aktak ere jarraitu igotzen web orrialdera.

IRABAZI: Udal aldizkarian lekutxo bat hartu hondakinen inguruko informazioa emateko.

ALKATEORDEA: Ekimen bat egin aurretik hondakin mahaiak prentsaurreko bat ematea egokia izango litzateke.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/05/03 Udaletxean 18.00-20.30



PLATAFORMA: Hondakin mahaia kontsulta ondoren bukatuko zela uste nuen eta nik ezin dut jarraitu hileroko bileretara etortzen. Beste pertsona bati esango diot azaltzeko bileretara.

Hurrengo bilera

Ekaineko bilera: ekainaren 7an arratsaldeko 18:00etan.